

TOLOSA / San Joanetako azokan bigarren eskuko liburuak salduko dira

Mando liburuzainak Andeetan gora eta behera dabilta.

Samaniego Ikastetxeko familia baten bidez, 'Fundación vital' izeneko GKE ikastetxeko ingurumen batzordearekin harremanetan jarri zen orain zenbait urte. Garai hartan, ONG hau, 50 familia, arrisku handiko leku batean kokatzeko lan egiten ari zen Guabas erreka inguruetan (Andes mendizerratik gertu). Helburua, 50 etxebizitza jasangarri eraikitzea zen. Etxebizitzaren diseinua, komunitate osoaren partaidetzarekin egiten ari ziren, ingurumenaren aldeko apustua eginez eta balore ekologikoen barneratzea bultzatuz. Hain kultura ezberdinetako komunitateak izanda ere, zerbait amankomunean genuela garbi ikusi genuen, eta anaieratze prozesu bati ekin genion, azaldu du Silvia Mateok, Samaniego ikastetxean proiektuaren arduradun denak. Prozesu honen ondorioz, ikastetxea Kolonbiako Guillermo León Valencia eskolarekin anaieratu zen, eta beste gauza batzuen artean hara bidaltzeko material didaktikoa jasotzeko konpromisoa hartu zuen; konpromiso hori, 'mando liburuzaina' lortzeko ahaleginean gauzatu zen. Mando bat, Kolonbiako nekazari-gune hauetara liburuak eramango dituen, herri horietako 'liburutegi mugikorra' izango dena. Mandoari esker liburuak nekazari-guneetara eramango dituen proiektu honen helburuetako bat familien baitan irakurketa sustatzea da, baita irakurritakoari buruzko hausnarketarako txoko kolektiboak eraikitzea ere. Familia eta komunitatearen bizipen eta oroitzapenetan oinarritutako istorioak sortu eta idatzi nahi dira, besteak irakurritz goza dezaten, eta alderantzizkoa ere lortu nahi da, hau da, munduko beste herrialdeetako eta giza-komunitateetako gizon-emakumeen istorioak irakurtzea. Proiektu honek 7.500 euroko aurrekontua du. Orain arte Samaniego Ikastetxeak antolatutako zenbait ekimeni esker (eskolako festako taberna, elkartasun krosa, zozketak,...) 5.000 euro inguru jaso dira. Falta zaigun kopurua lortzeko ahaleginetan, besteak beste, bigarren eskuko liburuaren salmenta bururatu zaigu. Horretarako Tolosako Haur liburutegi arekin harremanetan jarri gara eta asmo hori elkarrekin aurrera eramanez dezakegula ikusita, San Joanetako azokan bigarren eskuko liburu, cd eta bideoak saltzea erabaki dugu, jakinarazi du Silviak. Material hori guztia biltzeko deialdia herritar guztiei zuzendu diete; liburu, cd eta bideoak Haur Liburutegian bilduko dira. Beraz, bigarren eskuko material horietakoren bat proiektu honetarako eman nahi duen herritarrek, Haur Liburutegian utzi besterik ez du egin behar. Samaniego Ikastetxeko ordezkariak antolatutako dituzte material horren guztiaren jasotze eta sailkatze lanak, astean behin, edo beharrezkoa ikusten denean eskolara eramanez. San Joanetako azokan, stand bat jarriko dugu, bildutako materialak salgai jarri, argitu zuen Silviak. Azoka egunean, stand horren inguruan, ipuin kontalari baten saioa eskainiko da. Silviak adierazi zuen, bildutako material guztiak egun horretan ez direla salduko aurreikusten denez, datorren ikasturtean beste bitan salmenta antolatzea proposatu dutela. Nahiz eta 'mando liburuzaina' martxan jartzeko diru kopuru guztia lortu, hurrengo ikasturteetan horren mantenimendurako diru-laguntza bidaliko dugu. Tolosako Haur Liburutegiak urte batzuk badaramatza Kolonbiako komunitateari xahututako eta bildutako liburuak bidaltzen. Aurten, Samaniego Ikastetxeak eskatuta, beste era batera lagundu nahi die, hain zuzen 'Mando Liburuzaina' proiektuan parte hartuz. Horrela, liburutegiak egiten dituen xahupenei eta herritarrek emandakoari esker biltzen duen liburu bilduma hara

bidali beharrean, San Joanetako azoka berezian jarriko den stand horretan salgai jarriko du, xahutu diren liburu horiek ere proiekturako dirua biltzeko balio dezaten. Gainera, Aranburun ere xahuketa berezia martxan jarriko da, eta hori ere oso baliagarria izango da azokarako, azaldu du Susana Larrek, Haur Liburutegiko arduradunak. Egun horretan, aipaturiko materialaren salmentaz gain, liburutegiko txartela egiteko diptikoak eta eskaera orriak banatuko dira, baita betetako eskaera orriak jaso ere. Eskaera egiten duten herritarrek ekainaren 25etik aurrera jaso ahal izango dituzte euren txartelak liburutegian. Egitasmo honek proiektuan parte hartzeaz gain, liburutegiko zerbitzuak kaleratzea eta herritarrei hurbiltzea du helburu gaineratu du Susanak. Liburutegiko langileek larunbat horretan egindako lana borondatezkoa izango da. Bide batez, Tolosako Liburutegiak jakinarazi du uda eta azterketa garaietarako ordutegi berria martxan jarri duela. Aranburu Liburutegia zabalik egongo da goizeko 9:00etatik iluntzeko 20:00etara azterketa garaietan, hau da, maiatzaren 20tik uztailaren 4era eta irailaren 1etik 12ra. Ordutegi honekin unibertsitateko ikasleen eskaerei erantzun bat eman nahi zaie. Udan, berriz, uztailaren 7tik abuztuaren 31ra goizeko 9:00etatik arratsaldeko 17:00etara egongo da zabalik. Horrela, abuztuan goizez lan egiten duten herritarrei mailegu zerbitzua erabiltzeko aukera emango zaie. Haur Liburutegian ekainaren 25etik irailaren 5era arte iraungo du udako ordutegiak, eta honako hau izango da: goizeko 10:00etatik eguerdiko 14:00etara. Ordutegi honekin udaleku irekietako haurrek ere liburutegia erabiltzeko aukera izango dute. Azkenik, Usabal Liburutegia ere uda garaian (uztailaren 1etik irailaren 23ra) arratsaldez zabalik egongo da, 15:00etatik 19:00etara.